

HITZEKIN

DONIBANE GARAZIKO ADIERAZPENA

aek
22.korrika
Amurriotik Donostiara
2022ko martxoaren 3tik apirilaren 10era

Hitzek, hizkuntza; ekinak, herria. Euskaraz bizitzea erronka dugu eta horretarako ezinbesteko euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa; denon eskubidea delako. Orain da 22. tantoa egiteko unea: doako ezagutzaren unibertsalizazioa erdiesteko unea.

Urteetako joan-etorriak atzean utzita, garaia heldu da hizkuntza-eskubideak bermatzeko eta arlo horretan jauzi esanguratsu bat emateko. Garaia heldu da hizkuntza-politikan aldaketak egiteko, eta, jakina, erritmoak erritmo, Euskal Herri osoan eta norabide berean. Garaia heldu da euskararen normalizazio-prozesua azkartzeko eta, bide horretan, euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa aldarrikatzen dugu, Euskal Herriko herritar guztiontzat eta doakoa.

Argi dugu euskararen erabilera erosoarako baldintzak sortu behar direla eta hori erdiesteko nahitaezkoa da ezagutza bermatzea. Guztioi dagokigu egitea, eginaraztea, nork bere tokitik eta eginbeharretik ekinez eta eraginez. Hala ere, auzi honetan, administrazioek rol garrantzitsua jokatzen dute; ezinbestez eragile estrategikoak dira konpromisoetatik ekintzetara jauzi egingo badugu. Jakina da pauso esanguratsuak eman direla, baina aurrerapauso handiagoak emateko garai heldu da, hiztunen arteko desorekarekin eta desberdinkeriarekin amaitu behar dugu. Bistakoa da egungo hizkuntza-politikek oraindik ez dutela hiztunen arteko hizkuntza berdintasuna lortu. Lehen esan bezala, euskaraz aritzeko gaitasun egokia bermatzea da gakoa, edonork, edonon, euskara erabiltzeko eragozpenik izan ez dezan. Eta hori lortzeko euskarari prestigioa eman eta euskara lehenetsiko duten politikak jarri behar dira abian, euskararen aldeko hautua bultzatuko duten politikak.

Horiek horrela, Euskal Herriko administrazio nagusiei dei egiten dizuegu, hitzetatik ekintzetarako bidean jauzi berriak egiteko eskatzen dizuegu. Ezagutza unibertsalizatzeko iturri eta balditzetan

jarri ezazue arreta: hezkuntza-sisteman, helduen euskalduntzean eta hizkuntza-transmisioan edo -sozializazioan. Eman ezazue jauzia esparru horiei begirako politikan. Eremu soziofuntzionaletatik abiatuta, Euskal Herri osoan euskara eroso erabiltzeko eremuak sortzen, garatzen eta elkartzen joan behar duzue. Zeuok zarete eskubideen bideratzaile, bermatzaile, eta eredu izatea dagokizue. Beraz, ekin! Ekin elkarrekin! Zerekin? Hitzekin, Hitzarekin eta Ekinarekin!

Eta horren kari, dei berezia egin nahi dizuegu gaurkoan Ipar Euskal Herriko administrazio publikoko egiturei; hain zuzen ere, EEPri eta Euskal Elkar-goari, bidelagun izan zaitezten helduen euskalduntze-alfabetatze arloarentzat beharrezkoak diren dirulaguntzak bermatuz eta orain arte eman gabeko urratsak emanaz. Euskara ofiziala ez izanagatik ere, euskara ikasi nahi duen ororentzat eskubide gauzagarria izan dadin.

Garaia heldu da, gure etorkizuna jokoan da: euskaldunon eta euskararen etorkizuna. Gaur, Donibane Garazin elkartu gara eta doako euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa aldarrikatzen dugu.

Unea da euskal herritar orori euskara ikasteko bidea doakoa izan dakion neurriak hartzeko. Proposamen eta bide ezberdinak ezagutzen ditugu (UEMA, Euskarabidea, EEP, HPS, udalak, Kontseilua...). Elkar gaitezen eta osa dezagun, elkarlanean, eta berandu baino lehen, guztiok doan ikasteko bide-orria.

Horregatik, hitzetatik ekintzetara jauzia emateko konpromisoa eskatzen dugu, ekiteko garaia da. 22. tantoa jokatzerara goaz eta denon artean, elkarlanean, partida irabaziko dugu!

Donibane Garazin, 2022ko apirilaren 4an.

